

LGTBI+ HARROTASUNA OSPATU DEZAGUN, PERTSONA BEZALA AINTZAT HARTZEN GAITUENA

E28 2021 MANIFESTUA

Sexu- eta genero- aniztasunaren nazioarteko eguna

Duela mende erdi baino zerbait gehiago Stonewall deituriko taberna batetan, trabesti, transexual, prostituta, prostitutu, gaueko erregina, lesbiana eta homosexual talde jori batek pairatzen zituzten jazarpen polizialei erantzutea erabaki zuten hainbat egun iraun zituzten barrikada eta manifestazioen bitartez, milaka pertsona batzea lortu zutelarik.

Sotewall-eko matxinadak **harrotasun kolektibo eta ezezagun** baten jatorria izan ziren hauetan parte hartu zuten ororentzat, eta harrotasun honek askatasun berri bat sentiarazteko ez ezik, euren buruaren dignitate eta balioa haintzat hartzeko balio izan zien baita ere. Ordura arte ezin ziren gizaki bezala zuten balioaz ohartu, hain baitzen gogorra pairatzen zuten sistema arrotz eta bortitz hura, atsedean gabe segitzen zituena.

Harrotasun kolektibo eta ezezagun hau modu masiboan hedatu zen, eta mende erdi geroago esan dezakegu testuinguru geografiko anitzetako eta generazio ezberdinetako pertsona ez normatiboei, sexualitate edo genero aniztasunagatik, euren burua aldarrikatu, duin sentitu eta berdintasunean oinarritutako eskubideak lortzeko balio izan diela. Harrotasun honen arrakasta itzela izan da mendebaldeko hainbat herrialdetan, eta **duela denbora dexente LGTBI+ Harrotasunean bilakatu dela, urteen bilakaeran jatorriz zituen erreferentzia solidario eta alternatiboak galduz.**

LGTBI+ harrotasunaren insituzionalizazio politiko bat pairatzen ari gara, honen instrumentalizazioa, bere esanahien deusestatze osoa, eta **euren sexualitate eta generoan normatibizatuak ez zeuden pertsonen harrotasuna nola eta zergatik jaio zen ahazten ari gara.**

LGTBI+ harrotasuna adibiderik argiena da noraino garen gizarte oso gayfriendly bat. Hiri askok, bere instituzioak aurrean, honen eredu neoliberal batengana jo dute, ikono gai kontsumista batetan erdiratua, non eredu maskulino, txuri, gazte, sexy eta alai bat ikustarazten den, baina perspektiba feminista ez duena. Horrela, LGTBI+ harrotasuna garapen turistiko planetan sartzen da, harrotasunaren ideia honekin bat egiten duten pertsonak erakartzeko, baina kanpoan uzten du kolektiboko zati handi bat: pertsona LGTBI+ nagusiak, nerabeak, migratuak, errefuxiatuak, lesbianak eta beste aniztasun asko.

ALDARTEN LGTBI+ harrotasuna aldarrikatzen dugu, ospakizuna eta dibertsioa alde batetara utzi gabe, jaio zen arrosoiekin bat egiten duena. Orainik bizirik dirauten arrazoiak baitira izan ere, LGTBI+fobia modu estrukturalen existitzen jarraitzen baitu, gure instituzioetan murgilduta. Egunerokotasunean agertzen da modu sutilean, eta ez da da noizean behin loratzen den zerbait eraso fisiko edo diskriminazio argi batengatik.

LGTBI+ harrotsun kolektibo bat behar dugu, ahaztuko ez duena, ezta errealitate zaugarri, tragiko edo txiroenak ikusezin bilakatuko dituen.

LGTBI+ harrotasun kolektibo bat behar dugu, ospatzen duten pertsonak kontsumitzaile edo turista hutsetan bilakatuko ez dituen.

LGTBI+ harrotasun kolektibo bat behar dugu duintasuna ematen jarraituko duena, euren desira eta generoa askatasunez adierazten duten pertsona guztiak gizaki bezala haintzat hartuko dituen, dauden testuinguruan daudela.

**LGTBI+ HARROTASUNA OSPA DEZAGUN,
PERTSONA BEZALA HAINZAT HARTZEN GAITUENA!**

